

**HITZARMENA, ZAMUDIOKO UDALAREN  
ETA ADINTSUEN TALDEAREN ARTE-  
KOA, 2019. URTEAN IZENDATUTAKO  
DIRULAGUNTZA EMATEKO HELBURUA  
DUENA**

Zamudion, bi mila eta hemeretziko apirilaren 1ean.

**BILDU DIRA**

**ALDE BATETIK**, Igotz Lopez Torrek alkatea, Zamudioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa diharduela;

**ETA BESTETIK**, Domingo Martell jauna (NA: 14536675-P), Adintsuen Taldearen (IFK: G 48286330; egoitza: Sabino Arana plaza, 2, Zamudio) izenean eta ordezkari gisa diharduena. Ordezkaritza hori egiaztatzeko ekarri ditu, bate-tik, estatutuak eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren erregistro egokian izena emana dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Alderdi biok agiri hau formalizatzeko gaitasun juridikoa aitortu diote elkarri, eta jarduteko euren gain hartu dituzten ordezkariak onartu dizkiote elkarri. Beraz, ados jarririk honako hau

**ADIERAZTEN DUTE**

**LEHENA.-** Toki erakundeen aurrekontuetan dagozkienentzat izendaturik aipatzen diren dirulaguntzak zuzenean eman daitezke, hala xedatzen baitu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 28. artikuluan, 23. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatiaren ildotik. Halako dirulaguntzak bideratzeko, hitzarmena izaten da ohiko tresna. Nolanahi ere, araudian horri buruz xedatzen denari jarraituko zaio.

**BIGARRENA.-** Hitzarmen honen bidez ematen den dirulaguntza diru xedapen bat da, Udalak onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe eginga. Diru xedapen hori erakunde pribatu baten mesedetan eginga da, erakunde pribatu horrek jarduera edo programa batzuk egin ditzan, indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betez. Jarduera eta programa horien xedea izango da onura publikoko edo gizarte interese-

**CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO  
DE ZAMUDIO Y LA ASOCIACIÓN ADIN-  
TSUEN TALDEA PARA LA CONCESIÓN  
DE SUBVENCIÓN NOMINATIVA EN EL  
AÑO 2019**

En Zamudio, a cuatro de abril de dos mil diecinueve.

**REUNIDOS**

**DE UNA PARTE**, el Sr. Alcalde D. Igotz López Torre, actuando en nombre y representación del Ayuntamiento de Zamudio.

**DE OTRA PARTE**, D. Domingo Martell, con DN 14536675-P actuando en nombre y representación de Adintsuen Taldea, con CIF nº G 48286330 y domicilio en Sabino Arana Plaza 2 de Zamudio, según tiene acreditado por la aportación de los estatutos y certificado en vigor de inscripción en el Registro correspondiente del Gobierno Vasco.

Las partes se reconocen mutuamente la capacidad jurídica para la formalización del presente documento y aceptándose recíprocamente las representaciones a cuyo tenor actúan, de común acuerdo,

**MANIFIESTAN**

**PRIMERO.-** El Art. 28 en relación con el artículo 23, 2, a) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones establece que las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos de las Entidades Locales, podrán concederse directamente, en los términos contenidos en la citada Ley, siendo el convenio el instrumento habitual para canalizar dichas subvenciones, todo ello sin perjuicio de lo que a este respecto establezca la normativa reguladora.

**SEGUNDO.-** La subvención a que se refiere el presente Convenio supone una disposición dineraria realizada por el Ayuntamiento sin contraprestación directa de los beneficiarios, a favor de una entidad de carácter privado para la realización de unas actividades o programas que, cumpliendo los requisitos contemplados en la normativa vigente, tengan por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública o interés

ko jardueraren bat bultzatzea edo xede publikoren bat sustatzea, betiere xede horren bidez osatu edo ordezten badira Zamudioko Udalak hirugarren adinaren babesaren arloan dituen eskumenak.

**HIRUGARRENA.-** Udalaren 2019ko ekitaldirako Aurrekontu Arauak 24. oinarrian arautzen ditu zuzenean emateko izendatutako dirulaguntzak. Dirulaguntza horiek dira 2019ko udal aurrekontuko transferentzia arrunten eta kapital transferentzien eranskinean erabat identifikatutako erakunde edo pertsonentzat xedatzen direnak. Eranskin horretan, **BEDERATZI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAR EUROko** kopurua (9.690,00.- euro) ezarri da Adintsuen Taldearentzat.

**LAUGARRENA.-** Adintsuen Taldeak 2019an egitekoak diren jardueren eta haien kostuen aurreikuspena aurkeztu du Zamudioko Udaletxean. Gainera, ekitaldi horretarako aurrekontuan behar bezala sartutako diru sarrerak eta gastuak ere aurkeztu ditu eta egiaztatu du ez dela gehigizko finantzaziorik izango.

**BOSGARRENA.-** Aurreikusi diren jarduera guztiak ikusirik, Zamudioko Udalaren iritziz, guztiak dira hitzarmen honen bidez finantzatzekoak, salbu eta Udalak, zeharka, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen bitartez edo Zamudioko Udala partaide den beste edozein erakunde publikoren edo pribaturen bitartez dirulaguntza eman zaien jarduerak eta langileentzat xedatutako gastuak. Hitzarmen honen bidez finantzatutako diren jarduera guztiei aplikatuko zaizkie hitzarmenean ezarritako konpromisoak.

**SEIGARRENA.-** Zamudioko Udalak ez du inolako konpromisorik hartzen hitzarmen hau luzatzeko, eta, ondorioz, beste hitzarmen bat izenpetu beharko da berariaz hurrengo lankidetzetarako.

Aurretik aipatu diren aurrekariak eta adierazpenak kontuan izanik, alderdi biek hitzarmen hau egin dute eta haren bidez arautu zein baldintzatan emango den udal dirulaguntza. Dirulaguntzaren helburua da, alde batetik, kirol jardueretara xedatutako jarduerak, programak eta proiektuak finantzatzea eta, bestetik, Adintsuen Taldearen funtzionamendu gastuei erantzutea, ondorengo klausula hauen arabera:

social o de promoción de una finalidad pública que complementen o suplan las competencias del Ayuntamiento de Zamudio en el **área de protección de la tercera edad.**

**TERCERO.-** La Norma Presupuestaria municipal para el Ejercicio de 2019 regula en su Base 24 las subvenciones nominativas directas. Dichas subvenciones son aquéllas que se destinan a entidades o personas que se encuentran plenamente identificadas en el Anexo de Transferencias Corrientes y de Capital del Presupuesto Municipal para 2019, encontrándose como límite el importe máximo reflejado en el citado Anexo para Adintsuen Taldea de **NUEVE MIL SEISCIENTOS NOVENTA EUROS (9.690,00 €).**

**CUARTO.-** Adintsuen Taldea, ha presentado en el Ayuntamiento de Zamudio la previsión de las actividades y costos de las mismas que ha previsto realizar en el año 2019. Además presenta los ingresos y gastos debidamente presupuestados para el citado ejercicio, acreditando la inexistencia de sobre financiación.

**QUINTO.-** De todas las actividades proyectadas, el Ayuntamiento de Zamudio estima que todas ellas, excepto aquellas que son objeto de subvención de forma indirecta por el Ayuntamiento a través de la Mancomunidad de Servicios del Txorierrri o cualquier otra entidad pública o privada en la que participe el Ayuntamiento de Zamudio, así como los gastos destinados al personal, son objeto de financiación mediante el presente Convenio, por lo que les es de aplicación los compromisos aquí reflejados.

**SEXTO.-** No existe por parte del Ayuntamiento ningún tipo de compromiso para prorrogar el presente convenio, requiriéndose de forma expresa la firma de un nuevo convenio para realizarse sucesivas colaboraciones.

De conformidad con los antecedentes y manifestaciones anteriormente reflejadas, ambas partes formulan el presente Convenio regulador de las condiciones de la concesión de subvención municipal para la financiación de las actividades, programas y proyectos destinados a actividades de protección a la tercera edad, en sus diversas manifestaciones, así como de los gastos de funcionamiento de la asociación Adintsuen Taldea, con arreglo a las siguientes

## KLAUSULAK

### LEHENA.- DIRULAGUNTZAREN HELBURUA

Hitzarmen honen helburua da Adintsuen Taldeak aurrera eramaten dituen jarduerak, programak eta proiektuak finantzatzea, udalerriko bizilagunen alde hainbat jardura eramaten baititu aurrera, herriko hirugarren adinekoen babesaren arloan, ERANSKINEAN jasotakoaren arabera; izan ere, jardura, programa eta proiektu horiek interes orokorrekoak dira eta Udalaren Hirugarren Adinekoen Sailaren urteko programazioa osatzen dute. Elkarrekin izaten dituen kudeaketa eta administrazio gastuei erantzutea ere izango du helburu dirulaguntza honek, gastuok ezinbestekoak baitira elkarrekin funtzionamendurako eta iraupenerako, ERANSKINEAN jasotakoaren arabera.

HITZARMEN honen esparrutik kanpo geratuko dira, zuzenean edo zeharka, honako hauek ordaintzera bideratu nahi diren dirulaguntzak edo laguntzak: banku kontuetan zor diren korrituak, bestelako korrituak, errekaratuak, eta administrazio eta zigor zigorrak eta prozedura judizialen gastuak.

### BIGARRENA.- ONURADUNAK

Dirulaguntza honen onuraduna Adintsuen Taldea da. Elkarrekin hori behar bezala inskribatuta dago Euskadiko Autonomia Erkidegoko erregistro egokian, Eusko Jaurlaritzaren Elkarrekin buruzko otsailaren 12ko 3/1988 Legearekin bat etorritik, elkarrekin berak egiaztatu duen bezala:

- ✓ Egiaztatzea bere helburuen artean dagoela Zamudioko udalerrian hirugarren adinekoen eta erretiratuen balioak sustatzeko jarduerak egitea eta hirugarren adinekoen beharrezanek (kultura arlokoak, geriatrikoak, jolasak, aisialdi eta lanbide arlokoak, etab.) erantzuteko azterketak eta jarduerak egitea.
- ✓ Egoitza Zamudioko edukitzea edo Zamudioko herritarren onerako egitea jarduerarik gehienak.
- ✓ Hitzarmen honetan ezarri diren gainerako eginbeharrak betetzeko konpromisoa hartzea.

## CLÁUSULAS

### PRIMERA.- OBJETO DE LA SUBVENCION

El presente Convenio tiene por objeto financiar las actividades, programas y proyectos que se han formulado por parte de Adintsuen Taldea y que desarrolla actividades en materia de protección a la tercera edad en el municipio en beneficio de los vecinos del municipio, tal y como se recogen en el ANEXO, ya que son de interés general y que complementan la programación anual del Área de tercera edad del Ayuntamiento de Zamudio. También son objeto de subvención los gastos de gestión y administración soportados por la asociación que les resultan imprescindibles para su funcionamiento y existencia como tal y que se recogen igualmente en el ANEXO.

No se incluyen en el presente CONVENIO subvenciones o ayudas destinadas, directa o indirectamente, a abono de intereses deudores de las cuentas bancarias, intereses, recargos y sanciones administrativas y penales y gastos de procedimiento judiciales.

### SEGUNDA.- BENEFICIARIOS

Es beneficiario de ésta subvención la asociación Adintsuen Taldea, la cual se encuentra debidamente registrada en el Registro correspondiente de la Comunidad Autónoma Vasca, de acuerdo con la Ley 3/1988, de 12 de febrero de Asociaciones del Gobierno Vasco, conforme tiene acreditado la misma:

- Haber acreditado tener, entre sus fines, la realización de actividades relativas a la promoción de los valores de la Tercera Edad y jubilados, la realización de estudios y actividades para cubrir las necesidades de la Tercera Edad (culturales, geriátricas, recreativas, ocio-ocupacionales, etc.) en el municipio de Zamudio.
- ✓ Tener la sede y/o ejercer la mayor parte de sus actividades en Zamudio.
- ✓ Compromiso de dar cumplimiento a las demás obligaciones establecidas en el presente Convenio.

### **HIRUGARRENA.- DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA**

2019ko apirilaren 3an, Zamudioko Udalaren Gobernu Batzarrak iritzi dio Adintsuen aurkeztu duen dokumentazioak betetzen duela dirulaguntzei buruz indarrean dagoen araudia. Dokumentazio hori dirulaguntza emango zaien jarduerari buruzkoa da.

Hitzarmen honen bidez dirulaguntza ematen zaion kirol proiektua, programa edo jarduera ERANSKINean dago zehaztua, eskutako edukiarekin.

### **LAUGARRENA.- DIRULAGUNTZAREN HELBURUA ETA ZENBATEKOA**

Udalak, gehienez ere, hitzarmen honetan adierazitako zenbatekoa ordainduko dio elkarteari. Emandako dirua 2019ko ekitaldirako adierazitako helburuetara bideratu beharko da. Helburu horretarako guztira emandako dirua, 2017ko ekitaldirako hitzarmen honetan aipatua, BEDE-RATZI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEI ETA HAMAR euro (9.690,00 €) da.

Inoiz ere ez da emango dirulaguntzarik eskutakoa edo aurrekontuan mugatzat ezarritakoa baino handiago denik.

Hitzarmen honen ERANSKINean dago zehaztua zein gastu, programa, proiektu eta jarduerari ematen zaien dirulaguntza, eta zenbatekoa den haietako bakoitzerako dirulaguntza. Adierazitako zenbatekoak ezin izango dira bideratu aipatutakoak ez diren beste jarduera batzuetara.

Gertatzen bada proiekturen edo jardueraren bat geldiarazten dela edo ezeztatzen dela edo dirulaguntza emandako jardueraren batean beste edozein aldaketa egiten bazaio, orduan Udalak eskatu beharko du itzul dakiola dirulaguntza emandako jarduerari edo jarduerari aplikatu gabe geratzen den dirulaguntzaren zenbatekoa.

Udalak jarduerarik interesgarrienak lehenetsiko ditu aurrekontuetan dituen baliabideen arabera. Beraz, hala badagokio, osorik eman dezake, dirulaguntza gisa, proiektuan gastuen eta diru sarreren artean adierazitako aldea.

### **TERCERA.- PRESENTACIÓN DE DOCUMENTACIÓN**

La Junta de Gobierno del Ayuntamiento de Zamudio de fecha 3 de abril de 2.019, entiende que la documentación presentada por la Asociación Adintsuen Taldea, de las actividades objeto de subvención da cumplimiento a la normativa vigente en materia de subvenciones.

El Proyecto, programa o actividad deportiva que es objeto de la subvención contenida en el presente Convenio, se recoge en el ANEXO, con el contenido exigido.

### **CUARTA.- DESTINO DE LA SUBVENCION E IMPORTE**

Como máximo se abonará por el Ayuntamiento a dicha asociación el importe reseñado en el presente Convenio, debiendo destinar las distintas cantidades entregadas a los fines indicados correspondientes al ejercicio 2019. El importe total concedido dicho fin y a que se refiere el presente convenio para el ejercicio de 2017, asciende a de NUEVE MIL SEISCIENTOS NOVENTA EUROS (9.690,00 €).

En ningún caso se concederá una subvención que supere ni lo solicitado ni lo establecido de forma limitada en el presupuesto.

El ANEXO de éste Convenio establece los gastos, programas, proyectos y actividades que son objeto de subvención e importe correspondiente a cada uno de ellos. No podrá destinar los importes indicados a actividades distintas de las que se refiere.

En el caso cualquier suspensión o anulación de proyectos o actividades, así como cualquier otra modificación respecto de las actividades que hayan sido objeto de subvención por el Ayuntamiento, el Ayuntamiento deberá requerir la devolución o reintegro del importe de la subvención correspondiente que no haya sido objeto de aplicación a la actividad o actividades subvencionadas.

El Ayuntamiento, en función de la disponibilidad presupuestaria, prioriza únicamente las actividades más interesantes, de forma que puede ser subvencionada, en su caso, la totalidad de la diferencia entre gastos e ingresos señalada en el proyecto.

Zamudioko Udalak onartutako dirulaguntza hau oroharreko dirulaguntza da, diru kopuru jakinekoa. Dirulaguntza ematen zaion jarduera erabat gauzatzeko falta den finantzazio zatia onuradunaren kontura geldituko dela ulertuko da. Jardueraren kostu osoa txikiagoa bada emandako dirulaguntza baino, jardueraren kostu osoa gainditzen duen zenbatekoan baino ez du itzuli beharko finantzazio publikoa.

#### **BOSGARRENA.- DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO MODUA**

Dirulaguntzaren zenbatekoa –dirulaguntza aurretiaz egindako ordainketa da berez– elkarte onuradunak adierazitako banku kontuan ordainduko da; elkarteak banku kontu horren titularra izan behar du eta hala adierazi beharko du hirugarrenen fitxan. Ordainketa, gehienez ere, hilabeteko epearen barruan egingo da hitzarmen hau izenpetzen denetik zenbatzen hasita.

Adintsuen Taldeak, dirulaguntzaren onuraduna den aldetik, banku erakundearen ziurtagiria aurkeztu du, dirulaguntzaren sarrera egin baino lehen. Ziurtagiri horretan, bankuak adierazi du elkarte hori adierazitako banku kontuaren titularra dela, dirulaguntza banku kontu horretan ordain dakion.

Eskatzaileari ez zaio eskatuko gordailuan bermerik jartzerik betebeharrak gauzatzeko dituela eta emandako dirua egoki erabiliko duela bermatzeko.

Ez zaio ordainduko, baldin eta elkarte onuradunak aurreko ekitaldietan jasotako dirulaguntzetatik Udalak haietakoren baten justifikazioa onetsi ez badu onuradunak hitzarmenaren klausularen bat bete ez duelako, edota ordainketa egunean ez badauzka beteta bere zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak, edota zorduna bada itzultzea agintzen dion ebazpen baten ondorioz.

#### **SEIGARRENA.- ONURADUNAREN BETEBEHARRAK**

Dirulaguntzaren onuradun den aldetik, Adintsuen Taldeak ondoren aipatzen diren betebeharrak bete beharko ditu bereziki, hitzarmen ho-

La subvención concedida por el Ayuntamiento de Zamudio tiene la consideración de subvención a tanto alzado y por un importe cierto, entendiéndose que queda de cuenta del beneficiario la diferencia de financiación necesaria para la total ejecución de la actividad subvencionada, debiendo ser reintegrada en tal caso la financiación pública únicamente por el importe que rebasara el coste total de dicha actividad, si ésta fuere inferior a la subvención concedida.

#### **QUINTA.- FORMA DE PAGO DE LA SUBVENCIÓN**

El importe de la subvención, que tiene la consideración de pago anticipado, se abonará en el número de cuenta bancaria indicado por la asociación beneficiaria en la correspondiente ficha de terceros y de la que ésta sea titular, en el periodo máximo de un mes contado a partir de la resolución de concesión de la subvención.

Adintsuen Taldea, como beneficiaria de la subvención, sí ha procedido a la presentación, antes de la realización del ingreso de la subvención, del certificado de la entidad bancaria en el que conste que la misma es titular del número de cuenta que en el mismo se indique, a fin de efectuar en la misma el abono de la subvención.

No se exigirá el depósito de garantía alguna a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones y el destino de los fondos concedidos.

No se realizará el abono en el caso de que la asociación beneficiaria tuviera alguna subvención de ejercicios anteriores cuya justificación no hubiera sido aprobada por el Ayuntamiento y cuyo plazo para hacerlo ya hubiera vencido, ni si en el momento del pago no se hallare al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social o sea deudor por resolución de procedencia de reintegro.

#### **SEXTA.- OBLIGACIONES DEL BENEFICIARIO**

Son obligaciones específicas de Adintsuen Taldea, como beneficiario de la subvención, además de las contenidas en éste Convenio y demás

netan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritako betebeharrak bereziaz gainera:

- a) Elkarteei buruzko araudiak ezarritako betebeharrak betetzea.
- b) Finantza egoera egiaztatze eta kontrolatzeko jarduerari men egitea; beraz, jardueron barruan eskatzen zaizkion argibide guztiak eman behar ditu.
- c) Kontabilitate liburuak eta legeria aplikagarriak onuradunari kasuan-kasuan eskatutako agiriak edukitzea.
- d) Jasotako dirua aplikatu dela egiaztatzen duten agiriak gordetzea. Ordainketak benetan egin direla egiaztatzen duten frogagiriak barne.
- e) Jasotako dirua itzultzea, baldin eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan xedatutakoaren arabera dirulaguntza itzuli beharra badu.
- f) Programa, jarduera edo proiektuak garatzeko, esku programarik, kartelik, argazkirik, argitalpenik edo beste edozein eratako agiri grafikorik egiten bada, argi azaldu behar da Zamudioko Udalak babes eman duela programa, jarduera edo proiektua garatzeko; horretarako, ondo ikusteko moduko logotipoa agertu behar da, dirulaguntzaren zenbatekoarekin bat etorriko dena. Propaganda, gutxienez, euskaraz inprimatuko da.
- g) Udalaren dirulaguntza jaso duten proiektuak edo jarduerak eteten edo deuseztatzen badira edo dirulaguntzaren eskaeran adierazitakoa aldatzen bada, horren berri ematea. Udalak baimen berezia eman dezake, jardueraren edo programaren bat ezeztatuta edo aldatuta geratzen bada, hartarako dirua beste jarduera edo pro-

normativa aplicable, deberá dar cumplimiento de forma específica a las siguientes:

- a) Cumplir las obligaciones impuestas por la normativa reguladora de las asociaciones.
- b) Someterse a las actuaciones de comprobación y control financiero, aportando cuanta información les sea requerida en el ejercicio de estas actuaciones.
- c) Disponer de los libros contables y demás documentos exigidos por la legislación aplicable al beneficiario en cada caso.
- d) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos. Incluidos los justificantes de la efectiva realización de los pagos.
- e) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en caso de incurrir en causas de reintegro de las señaladas en el Artículo 37 de la Ley General de Subvenciones.
- f) Establecer de forma clara en los ejemplares de programas de mano, carteles, fotografías, publicaciones u otra documentación de carácter gráfico elaborada para el desarrollo del programa, actividad o proyecto la expresa mención del patrocinio del Ayuntamiento de Zamudio con la inserción del logotipo visible y acorde a la cuantía de la subvención. La propaganda irá impresa al menos en euskera.
- g) Comunicar cualquier suspensión o anulación de proyectos o actividades que hayan sido objeto de subvención por el Ayuntamiento, así como cualquier otra modificación respecto de lo contenido en la solicitud de subvención. El Ayuntamiento podrá autorizar de forma específica cambiar el destino del

grama batera bideratzeko.

- h) Jarduera eta ikuskizun publikoak antolatzeko indarrean dagoen araudia betetzea (erantzukizun zibileko aseguru, joko eta ikuskizunen araudia, espazio publikoak erabiltzeko udal baimena, etab.).
- i) Elkarteak herriko jai ekitaldiak prestatzeko egin beharreko batzar guztietan hartuko du parte, elkarte bakoitzak jai egunetan egingo dituen jarduerak koordinatuko baitira batzarrotan; modu aktiboan hartu beharko du parte batzar horietan.
- j) Udalak udalerrian jarduerari buruzko publizitatea jartzeko emandako arauak eta jarraibideak betetzea, estetika mantentzeko irizpideak gorde daitezen udalerrian.

importe concedido, para la actividad o programa anulado o modificado, a otra actividad o programa.

- h) Cumplir con la normativa vigente en lo referente a la organización de actividades y espectáculos públicos (seguro de responsabilidad civil, normativa de juegos y espectáculos, autorización municipal de uso de espacio público, etc.).
- i) La asociación participará en todas aquellas reuniones que sea preciso realizar para la realización de las actividades festivas del municipio a fin de coordinar las actividades a ejecutar por cada asociación durante los periodos festivos, participando activamente en las mismas.
- j) Dar cumplimiento a la normativa y pautas establecidas por el Ayuntamiento en relación con la colocación de propaganda de las actividades en el municipio, a fin de dar cumplimiento a los criterios de mantenimiento de la estética en el municipio.

#### **ZAZPIGARRENA.- DIRULAGUNTZAREN ERABILERA JUSTIFIKATZEA**

1.- Adintsuen Taldeak justifikazioa aurkeztu beharko du hiru hilabeteko epean. Epe hori dirulaguntza eman zaion jarduera edo programa amaitzen denetik aurrera hasiko da zenbatzen. Hala ere, Udalari hurrengo ekitaldirako edozein eratako dirulaguntza emateko eskaera aurkeztu baino lehen aurkeztu beharko du justifikazio hori; hau da, dirulaguntza eman eta hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen, betiere dirulaguntza ematen zaion jardueraren beteazpena bat badator egutegiko urtearekin. Justifikazioa hala aurkeztu beharko du, nahiz eta Dirulaguntzak emateari buruzko Udal Ordenantza Orokorraren 17. artikuluan xedatutakoari jarraitu behar dion.

Justifikazioa aurkezteko epe arrunta amaitu baino lehen, interesdunak berriaz eskatzen

#### **SEPTIMA.- JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN**

1.- Sin perjuicio de lo establecido en el Art. 17 de la Ordenanza General Municipal Reguladora de la Concesión de Subvenciones, Adintsuen Taldea deberá presentar en el plazo de tres meses, contados desde la finalización de la actividad o programa subvencionado, su correspondiente justificación, y en todo caso antes de la presentación de la solicitud de subvención por la misma al Ayuntamiento, por cualquier clase de subvención, en el ejercicio siguiente a aquél para el que se le concedió la subvención, esto es, antes del 31 de marzo del ejercicio siguiente para el que se concede la subvención, en el caso de que la ejecución de la actividad subvencionada coincidiera con el año natural.

El Ayuntamiento de Zamudio, podrá otorgar, previa solicitud expresa del interesado antes de

badu luza dadila epe hori, Zamudioko Udalak onartu ahalko du justifikazioa aurkezteko ezarritako epea luzatzea. Nolanahi ere, luzapenak ezin gaindituko du epearen iraupenaren erdia, eta harekin ezin kaltetuko da hirugarrenen eskubiderik.

Justifikazioa aurkezteko ezarritako epea igarotzen bada Zamudioko Udalari justifikaziorik aurkeztu gabe, Zamudioko Udalak onuradunari eskatuko dio hamabost eguneko epe luzaezinean aurkez dezala eskatutako dokumentazioa. Justifikazioa puntu honetan araututako luzapenaren barruan aurkezten ez bada, dirulaguntza itzultzea eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean ezarritako gainerako erantzukizunak exijituko dira. Justifikazioa puntu honetan araututako luzapenaren barruan aurkezten bada, horrek ez du onuraduna libratuko Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrearen arabera dagozkion zigoretatik.

2.- Onartutako dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000.- eurotik beherakoa da eta, ondorioz, Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduaren 75. artikulua da aplikagarria. Artikulu horrek «justifikazio kontu sinplifikatua» ezartzen du dirulaguntza justifikatzeko, eta, haren arabera, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Jarduerari buruzko oroitidazki bat, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla egiaztatuko duena. Oroitidazki horrek argitu beharko du zein jarduera egin diren eta zein izan diren emaitzak.

b) Jardueraren gastu eta inbertsioak sailkatuko dituen zerrenda bat. Zerrenda horretan zehaztuko da zein diren hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordaintzeko data. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, desbideratzen berri emango da.

c) Xehetasun orri bat, dirulaguntza eman zaion jarduera finantzatu duten beste diru sarrerak edo dirulaguntzak zehaztuko dituen. Xehetasun orri horretan aditzera emango da zein diren zenbatekoak eta haien jatorria.

d) Hala badagokio, itzulketaren ordainagiria, baldin eta aplikatu gabeko geldikinik eta geldikinen korriturik badago.

la finalización del plazo ordinario de justificación, una ampliación del plazo establecido para la presentación de la justificación, que no exceda de la mitad de mismo y siempre que con ello no se perjudiquen derechos de terceros.

Transcurrido el plazo establecido de justificación sin haberse presentado la misma ante el Ayuntamiento de Zamudio, éste requerirá al beneficiario para que en el plazo improrrogable de quince días sea presentada la documentación requerida. La falta de presentación de la justificación en el plazo establecido en este apartado llevará consigo la exigencia del reintegro y demás responsabilidades establecidas en la Ley General de Subvenciones. La presentación de la justificación en el plazo adicional establecido en este apartado no eximirá al beneficiario de las sanciones que, conforme a la Ley General de Subvenciones, correspondan.

2.- Dado que la cuantía de la subvención concedida es de un importe menor de 60.000.- €, será de aplicación el Art. 75 del Reglamento de Subvenciones que establece la cuenta justificación simplificada para la justificación de la subvención, deberá aportarse la siguiente documentación:

a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos

b) Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto estimado, se indicarán las desviaciones acaecidas.

c) Un detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia

d) En su caso, carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados así como de los intereses derivados de los mismos.

e) Liburuxka, kartel, liburu edo antzekoen ale bat, dirulaguntza eman zaion jarduera edo programa egitean dirulaguntza jasotako elkarteak argitaratua, edozein dela ere argitaratzeko erabilgaitako formatua: liburua, irudia, soinua nahiz digitala.

f) Adintsuen Taldeak ezarri zitzaion epearen barruan erabat justifikatu gabe utzi badu Udalak aurreko urteren batean beste jarduera edo proiektu baterako emandako dirulaguntza, edo justifikazioak onartzeko modukoak ez badira, Udalak ez du ordaintze-agindurik emango elkarrearen izenean.

Zamudioko Udalak laginketa teknikak erabiliko ditu eta haien bidez egiaztatuko ditu, alde batetik, banaka-banaka gutxienez dirulaguntzaren %10era heltzen diren fakturen jatorrizko frogagiriak eta, bestetik, zenbateko handiagokoak diren fakturen jatorrizko frogagiriak, baldin eta, guztiak baturik, jardueraren beteazpenaren %75era heltzen badira. Horretarako, lehen aipatu diren gastuen jatorrizko frogagiriak edo behar den moduan egiaztatutako frogagiriak aurkeztu beharko ditu Adintsuen Taldeak; alegia, dirulaguntza eman zaion jarduera, proiektua edo programa egitearen ondorioz sortutako gastuei dagozkienak. Frogagiriok honako hauek izan behar dute: jatorrizko fakturak, balio juridikoa duten kopia egiaztatuak edo merkataritzako trafikoko juridikoan baliodunak diren gainerako dokumentuak, baldin eta gastuak frogatzeko aurreko dokumentuen pareko balioa badute.

Ziurtagiri bat ere aurkeztuko da, elkarrearen ordezkariak izenpetua, aurkeztutako gastuen frogagiri guztiak dirulaguntza eman zaion programari, proiektuari edo jarduerari dagozkiola egiaztatuko duena.

Era berean, Adintsuen Taldeak Zamudioko Udalaren –dirulaguntzaren emailearen, alegia– egiaztatze lanei egin behar die men, bai eta eskumena duten kontrol organoek finantza arloan egingo dituzten egiaztatze eta kontrolatze lanei. Hori dela eta, lan horiek bete ahal izateko eskatuko zaizkion informazio guztiak eman beharko ditu.

e) Un ejemplar de los folletos, carteles, libros, etc. en formato libro, imagen, sonido o digital que se haya editado por la asociación beneficiaria de la subvención con ocasión de la realización de la actividad o programa subvencionado.

f) En el caso de que Adintsuen Taldea no haya justificado totalmente cualquier otra actividad o programa para la que el Ayuntamiento haya concedido una subvención en ejercicios anteriores en el plazo establecido o no fuesen admisibles los citados justificantes, no se procederá al libramiento de cantidad alguna a favor de la misma.

El Ayuntamiento de Zamudio, comprobará, a través de las técnicas de muestreo, los justificantes originales de las facturas que individualmente supongan al menos un 10% de la subvención concedida y de aquellas facturas de mayor importe, que sumadas representen un 75% de la ejecución de la actividad, a cuyo fin la asociación Adintsuen Taldea presentará los justificantes originales, o debidamente compulsados, de los gastos antes indicados y que se han devengado como consecuencia de la realización de la actividad, proyecto o programa subvencionado. Dichos justificantes consistirán en facturas originales o copias compulsadas con validez jurídica o cualesquiera otros documentos de valor probatorio equivalente con validez en el tráfico jurídico mercantil.

Se aportará también un certificado suscrito por el representante de la asociación en el que conste que todos los justificantes de gastos que se presentan se corresponden al programa, proyecto o actividad subvencionadas.

Igualmente la asociación Adintsuen Taldea, deberá someterse a las actuaciones de comprobación e efectuar, en su caso, por el Ayuntamiento de Zamudio, concedente de la subvención, así como cualesquiera otras acciones de comprobación y control financiero que se realicen por los órganos de control competentes, debiendo aportar cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

### **ZORTZIGARRENA.- BESTE DIRULAGUNTZA BAZUEKIKO BATERAGARRITASUNA**

Adintsuen Taldeak Zamudioko Udalarengandik jasotzen dituen dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuek ematen dituzten dirulaguntzekin, baita jarduera, proiektua edo programa finantzatzeko ematen diren beste edozein eratako diru sarrerekin ere. Hala ere, dirulaguntza emandako jarduera edo programa gauzatzeko lortzen den finantzazioaren zenbatekoa ezin izango da handiagoa izan dirulaguntza emandako programaren kostua baino. Gehiegizko finantzaziorik izanez gero, elkarrekin itzuli egin beharko du gehiegizko finantzazio horri dagokion zenbatekoa.

### **AZKEN XEDAPENA**

Hitzarmen honetan xedatu ez den guztirako, honako lege-arau hauek aplikatuko dira: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua eta Udal Ordenantza Orokorra.

Alderdi biak hitzarmen honetan adierazitakoarekin ados daudenez, alderdi bion ordezkariak izenpetzen dituzte kopia bina, xede bakar bat izanik, idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

**ALKATEA,**

**IGOTZ LOPEZ**

### **OCTAVA.- COMPATIBILIDAD CON OTRAS SUBVENCIONES**

Las subvenciones que Adintsuen Taldea pudiera percibir del Ayuntamiento de Zamudio serán compatibles con las de otras administraciones o entes públicos o privados o cualquier otro tipo de ingreso para financiar la actividad, proyecto o programa. En cualquier caso, el montante de la financiación obtenida para la ejecución de la actividad o programa subvencionado no podrá resultar superior al coste del programa subvencionado. En el caso de que se diese sobre financiación la asociación deberá proceder a la devolución del importe correspondiente a dicha sobre financiación.

### **DISPOSICIÓN FINAL**

En lo no dispuesto en el presente Convenio, será de aplicación lo establecido en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre General de Subvenciones, Real Decreto 887/2006, de 21 de julio por el que se aprueba el Reglamento de la Ley de Subvenciones y en la Ordenanza Municipal General.

Resultando ambas partes conformes con el contenido del presente Convenio, se firman por los representantes de las mismas por duplicado ejemplar y a un solo efecto, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

**ADINTSUEN TALDEA**

**DOMINGO MARTELL**